

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 4.182.000 euro emango ditu langabetuak trebatu eta laneratzeko

*2014an hasten diren Enplegurako lantegi-eskolen eta Sustapen eta garapeneko unitateen proiektuetarako diru-laguntzak dira.*

Miércoles, 26 de febrero de 2014

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-kudeatzaileari Enplegurako lantegi-eskolen eta Sustapen eta garapeneko unitateen programak finantzatzeko diru-laguntzak emateko zenbait urtetarako gastuaren konpromisoa hartzeko baimena ematea adostu du. Guztira 4.182.000 euro dira (1.707.000 euro 2014an, 2.400.000 euro 2015ean eta 75.000 euro 2016an).

Zenbateko horrekin finantzatzeko dira 2014an hasten diren Enplegurako lantegi-eskolen eta Sustapen eta garapeneko unitateen programak (SGU), Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-kudeatzailearen martxoaren 15eko 388/2013 Ebazpenaren bidez onetsitako programa horientzako diru-laguntzen deialdiaren babesean.

Enplegurako lantegi-eskolena langabetuentzako trebakuntza eta enplegua bateratzen dituen programa mistoa da. Langabetu horiek, askotan, zailtasun bereziak izaten dituzte enplegua aurkitzeko, baina programaren bidez lanpostua lortzeko aukerak handitu egiten dira, trebakuntzaren amaieran trebakuntza egiaztatua jasotzen dutelako eta, horrekin, dituzten gaitasun profesionalak erakutsi ditzaketelako. Programaren helburu nagusia ikasle guztiak laneratzeko lortzea da, euren enplegarritasuna oro har handituz trebakuntzaren eta praktika profesionalen bidez. Horretarako, programak trebakuntzaren kostuak eta ikasleen trebakuntza-faseko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 eta praktiken faseko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 finantzatzen ditu.

Enplegurako lantegi-eskolen programek irauten duten denboran, jendeak erabiltzeko edo interes sozialeko obrak eta zerbitzuak gauzatuko dituzte, ikasle langileei lan eraginkorrak burutzeko aukera emateko. Hala, jasotako enplegurako lanbide-heziketarekin, lanbide-prestakuntza eskuratu eta laneratzeko bultzatuko da. Obra eta zerbitzu horiek ikasleen kontratazio-konpromisoak onartzen dituzten enpresetako praktikak ere izan daitezke.

Diru-laguntzen onuradunak izango dira Nafarroako tokiko erakundeak, horien organismo autonomoak eta mendeko edo horietara integratutakoak, Nafarroako irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta bestelako erakundeak eta horiek eta enpresek osaturiko taldeak, ikasleek azken horietan laneko praktikak egitea eta, ondoren, laneratzeko konpromisoa hartzea errazteko.

Bestalde, Sustapen eta garapeneko unitateak (SGU) Enplegurako lantegi-eskolen prestaketan, laguntzan eta jarraipenean aritzen diren moduluak dira.

2013an 3.036.902 euro eman ziren programa horietarako. Laguntzak Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatzen dira.